

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %8,7 gehitu ziren 2015eko martxoan

Gaualdiak %10,1 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean

2015eko martxoan, 175.546 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 14.120 gehiago, %8,7ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %15,2 gehitu ziren Gipuzkoan, %11,7 Araban, %3,0 Bizkaian.

Gaualdiak, 2015eko martxoan, 318.072, aurreko urtekoan baino 29.145, %10,1, gehiago. Gaualdiak ere urte arteko bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %16,5, Araban %13,2, Bizkaian %4,2.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2015eko martxoa

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2015/03	m/m-12 (%)	2015/03	m/m-12 (%)	2015/03	2014/03	plazaka		gelaka	
							2015/03	p.p.*	2015/03	p.p.*
EUSKAL AE	318.072	10,1	175.546	8,7	1,81	1,79	37,3	3,5	48,8	4,1
Estatukoak	227.475	10,9	127.922	8,6	1,78	1,74	-	-	-	-
Atzeritarrak	90.597	8,1	47.624	9,1	1,90	1,92	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	44.259	13,2	25.267	11,7	1,75	1,73	32,1	3,8	41,8	4,6
Estatukoak	34.645	12,0	20.237	8,9	1,71	1,67	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.614	18,0	5.030	24,5	1,91	2,02	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	33.368	9,3	18.406	9,1	1,81	1,81	34,7	3,2	47,2	4,3
BIZKAIA	145.728	4,2	81.595	3,0	1,79	1,77	36,4	0,9	50,5	2,0
Estatukoak	101.811	4,3	59.053	2,4	1,72	1,69	-	-	-	-
Atzeritarrak	43.917	4,0	22.542	4,7	1,95	1,96	-	-	-	-
Bilbao	102.349	7,7	56.008	5,9	1,83	1,80	43,5	2,9	59,0	4,0
GIPUZKOA	128.085	16,5	68.684	15,2	1,86	1,84	40,7	6,5	49,7	6,5
Estatukoak	91.019	19,0	48.632	17,1	1,87	1,84	-	-	-	-
Atzeritarrak	37.066	10,8	20.052	10,9	1,85	1,85	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	73.417	21,9	40.643	19,5	1,81	1,77	45,6	6,7	55,3	6,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Estatuko bidaiariak %8,6 gehitu dira aurreko urteko martxoaren aldean, eta atzerrikoak %9,1. Araban estatukoak %8,9 gehitu dira, atzeritarrak %24,5. Bizkaian estatukoak %2,4 gehitu eta atzeritarrak %4,7. Gipuzkoan estatukoak %17,1 gehitu eta atzeritarrak %10,9.

Batez besteko egonaldia, martxoan, 1,81 egun, 2014koan 1,79 zelarik. Araban lehengo urteko 1,73 egunetik aurtengo 1,75era luzatu da; Bizkaian 1,77tik 1,79ra; Gipuzkoan 1,84tik 1,86ra.

Plazakako betetze-maila ehuneko 3,5 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, 2014ko martxoko %33,8tik aurtengo %37,3ra. Araban ehuneko 3,8 puntuz gehitu da, %28,3tik %32,1era. Bizkaian

ehuneko 0,9 puntuz gehitu, 2014 martxoko %35,5etik aurtengo %36,4ra. Gipuzkoan ehuneko 6,5 puntuz gehitu, 2014ko martxoko %34,2tik aurtengo %40,7ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko 4,1 puntuz gehitu da Euskal AE osoan; okupazioa, %48,8. Araban ehuneko 4,6 puntuz gehitu da, %41,8ra; Bizkaian 2,0z, %50,5era; Gipuzkoan 6,5ez, %49,7ra.

Hotel-okupaziorik handienak martxoan Donostian (%45,6), Bilbon (%43,5), Gipuzkoako kostaldean (%38,9).

Asteko eguna aintzat, Euskal AEn 2015eko martxoan okupaziorik handiena (%51,0) aste-bukaeretan; %32,5 lanegunetan.

Gaualdiak gehitu, %6,3, eta bidaiari sarrerak %10,7 gutxitu martxoan landa-ostatueta

Euskal AEko landa-ostatueta 6.856 bidaiari-sarrera erregistratu ziren aurtengo martxoan, %-10,7 aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %-16,3 sarreretan; Bizkaian %-17,8; Gipuzkoan %-5,6. Atzerritarren sarreretan %-11,6 aurreko urtekoen aldean; sarrera guztien %5,6 dira. Estatuko bidaiarien sarrerak %10,6 gutxitu ziren.

Euskal AEko landa-establezimenduetan martxoan 14.519 gualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %6,3ko gehikuntza. Araban %-1,6; Bizkaian %-29,3, Gipuzkoan %+16,1.

Plazakako betetze-maila, %12,6, ehuneko 0,6 puntu gehiago 2014ko martxoan baino. Araban ehuneko 0,3 puntu gehiago, betetze-maila %10,5. Bizkaian betetze-maila %8,8, ehuneko 1,7 puntu gutxiago 2014ko martxoaren aldean, eta Gipuzkoan 2,3 puntu gehiago, %16.

Bidaiariko batez besteko egonaldia luzatu egin da 2014ko martxoaren aldean: duela urtebete 1,78 egun; aurtengoan 2,12.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2015eko martxo

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila	
	2015/03	m/m-12 (%)	2015/03	m/m-12 (%)	2015/03	2014/03	2015/03	p.p.*
EUSKAL AE	14.519	6,3	6.856	-10,7	2,12	1,78	12,6	0,6
Araba/Álava	2.521	-1,6	1.289	-16,3	1,96	1,66	10,5	0,3
Bizkaia	3.161	-9,3	1.508	-17,8	2,10	1,90	8,8	-1,7
Gipuzkoa	8.837	16,1	4.059	-5,6	2,18	1,77	16,0	2,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko datu-bankua